
Sareen Sarearen dekalogo 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Iparragirre, 9
48009 Bilbao
Tel. 946 569 230
info@sareensarea.eu
www.sareensarea.eu



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Sareen Sarearen dekalogo
2020ko hauteskunde autonomkoak

Aurkezpena

Uztailaren 12ko hauteskundeek berebiziko garrantzia hartuko dute, gaur egun bizi dugun ziurgabetasun handiko testuinguruan. Martxotik aurrera, **COVID-19ren** pandemiaren ondorioz bizi dugun osasun-krisi globalak aurrekaririk gabeko osasun-larrialdia ekarri du, baina baita gizarte-larrialdia eta larrialdi ekonomikoa ere. Egoera horretan, hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta erakunde publikoek ahaleginak areagotu behar izan dituzte egoera zaurgarrian dauden pertsonen premiei erantzuteko. Izan ere, pertsona horien kalteberatasuna bikoitza da, pertsona guztiok hauskor sentitu baikara egoera berri horretan.

Berehalako eta premiazko erantzunak emateko unea igarota, erronka handi bat dugu aurrean: behar berriak eta krisialdi honek larriagotutako behar zaharrak dituzten pertsonak, familiak eta kolektiboak. COVID-19ren ondorioek agerian utzi dituzte funtsezko sektoreetan **gainditu gabe dauden gaiak**: enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza edo gizarte-zerbitzuak, arrakala digitala eta politika publikoak indartzeko beharra, gizarte osoa babesteko, bereziki, pertsona ahulenak.

Haien profilak identifikatu ditugu, arazoak ezagutzen ditugu, premiazko erantzuna eman dugu... Baina orain erantzun eraginkorrak prestatu eta ibilbideak diseinatu behar dira. "Normaltasun berrira" itzultzea, hala badagokio, **gizarteratzeko eta oinarritzko eskubideak eraginkortasunez baliatzeko** aukera izan behar da.

Era berean, eta krisi ekonomikoak eraginda baliabide publikoak murriztu egin daitezkeen unean, inoiz baino beharrezkoagoa da inbertsio sozialaren, babes sozialeko eta osasun sistema indartsuen, eta **babes sozial publikoko politika bermatzaileen** beharra balioestea inor atzean gera ez dadin.

SAREEN SAREAK pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako legebiltzar baten eta gobernu baten aldeko apustua egiten du. Horien helburu nagusia **gizarteratze eta gizarte-kohesio mailak handitzea** eta berdintasuna eta eskubideen berme eraginkorra izatea nahi dugu. Gizarte-politiken garapena bermatuko duten erakunde publikoak behar ditugu, baliabideak murriztu gabe eta estrategia zein helburu argiekin.

COVID-19ren krisia aldaketa demografikoari gainjartzen zaio. Biek aldatzen dute gure errealitate soziala eta zaintza-politikak ekartzen dituzte lehen orrira. Gizon eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortzeko bidean jarraitu behar dugu. Pertsona guztientzako etxebizitzak, eremuak eta zerbitzu publikoak behar ditugu, bizitza independente eta autonomoa erraztuko dutenak. Garapen-eredu jasangarri bat bultzatu behar da, Nazio Batuen 2030 Agendan eta Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Basque Country 2030 Agendan ezarritakoaren ildotik.

Erronka horiei guztiei aurre egiteko, gizarte osoaren eta, bereziki, gizarte zibil antolatuaren inplikazioa behar da. Boluntariorik irudikatzen dituen **elkartasuna eta parte hartze soziala sustatu** behar dira. Horiek Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sareen eta erakunde bitartez antolatzen dira. Era berean, elkarriketa zibila indartu behar da (erakunde publikoen eta hirugarren sektore sozialaren arteko lankidetzak), gizarte-erakundeek egunerokotasunean eragiten dieten erabaki politikoetan parte har dezaten, premia larriko une honetan egin duten bezala.

Zentzu horretan, datozen hauteskundeetan **SAREEN SAREAK egindako proposamenen dekalogo**a eztabaidatu eta aintzat hartzeko eskatzen diegu alderdi politikoei.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Sareen Sarearen dekalogoia
2020ko hauteskunde autonomkoak

1

Diru-sarrerak bermatzeko sistema baterako eta gizarteratzeko eskubidea

Gutxieneko errentaren estatu-esparru berria kontuan hartuta, Eusko Legebiltzarrean lege bat onartzea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarterako gaur egungo Euskal Sistema indartu, eguneratu eta hobetuko duena, norabide bikoitzean: herritar guztientzako gutxieneko diru-sarrerak bermatu eta gizarteratze-politika eraginkorrak bultzatze aldera.

Pobreziari eta gizarte-bazterkeriari modu eraginkorren aurre egitea.



Irisgarritasun unibertsalerako eskubidea

Baldintza berdinetan zerbitzu eta espazio publiko guztietarako irisgarritasun unibertsalaren estrategia baten aldeko konpromisoa (kaleak, plazak, garraioa, eraikinak, osasuna, hezkuntza, aisialdia...).

Pertsona guztientzako sarbidea, eremu guztietan.

2

3

Etxebizitza izateko eskubidea

Pertsona batzuek ez dute konfinatzeko moduko etxebizitza duinik. Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen garapena bultzatzea, benetan izan dezaten bermatuta etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat izateko eskubidea.

Etxebizitza izateko eskubidea betetzea.



Hezkuntzarako eskubidea

Hezkuntza unibertsala, bidezkoa, berritzailea eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea bermatzea, laguntza beharra duten pertsona guztien gizarteratze erreala eta eraginkorra lortzeko baliabide eta laguntza guztiak jarritz.

Pertsona autonomoak eta izpiritu kritikoarekin prestatzea, aukera-berdintasunean.

4

5

Lan duina izateko eskubidea

Osasun-krisiak, lehenik eta behin, enplegu prekarioak, kualifikazio urria eta oso feminizatuak dituzten pertsonak baztertzea ekarri du. Era berean, lana eta familia uztartzeko zailtasunak ikusarazi ditu. Euskal Enplegu Sistemaren eta Lanbideren Lege bat onartzea, pertsona guztiok lan duin eta kalitatezkoa izateko eskubidea sustatuko duena, arreta berezia eskainiz lan-mundura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzeko neurriak artikulatzea.

Lan duina, inklusiboa eta kalitatezkoa guztiontzako.





Sareen sare

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Decálogo Sareen Sarea
Elecciones Autonómicas 2020

6

Genero-berdintasunerako eskubidea

Osasun-krisiak agerian utzi ditu zaintza-krisia eta lanaren antolaketa sozial eta ekonomikoaren ekitate eza. Euskadin, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan aurrera egin behar da, tratu-berdintasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria desagerrarazteko.

Emakume eta gizonen eskubideen benetako berdintasuna.



Osasunerako eskubidea

7

Orain, inoiz baino gehiago dakigu zer balio duen kalitatezko osasun-sistema publiko batean inbertitzeak. Osasun-estaldura eta osasun-sistamarako irisgarritasun unibertsala bermatzea, arretan zuzen jokatzuz –arreta berezia eskainiz kolektiborik ahulenei–, eta esparru soziosanitarioa garatuz.

Osasun-sistamarako sarbide unibertsala bermatzea.

8

Bizikidetza sustatzea eta aniztasuna modu positiboan kudeatzea

Aniztasuna modu positiboan kudeatzeko eta bizikidetza sustatzeko politikak garatzea, gizarteratzea bermatuko dutenak. Elkartasunean, erantzunkidetasunean, aniztasunean, giza eskubideetan eta berdintasunean oinarritutako bizikidetza-kultura bat bultzatzea, edozein diskriminazio mota errefusatuko duena: bai sexuagatiko, sexu orientazioagatiko, adinagatiko, arrazagatiko edota familia motakoa.

Giza eskubideetan oinarritutako bizikidetza sustatzea.



Boluntarioen eta Hirugarren Sektore Sozialaren lana sustatzea

Hirugarren sektore sozialeko milaka boluntariok eta profesionalek dena eman dute krisialdi honetan, pertsona zaurgarrien gizarte eta osasun beharrei erantzuteko. Elkartasuneko eta parte-hartze sozialeko politikak garatu behar dira, boluntariotza eta hirugarren sektore sozialeko erakundeak eta sareak sustatuz. Elkarrizketa zibila, eta erakunde publikoen eta hirugarren sektore sozialeko sare eta erakundeen arteko lankidetzak eta kolaborazioa indartzea, politika publikoak diseinatzeko, ebaluatzeko eta horien jarraipena egiteko.

Hirugarren sektore soziala benetan hartzea erreferentziazko eragile sozialtzat.

9

10

Garapen jasangarrirako politikak eta 2030erako Agenda

Eusko Jaurlaritzaren politikak elkarren artean koherenteak izatea, gizakiaren garapena bultzatzeko eta berdintasun ezaren aurkako borrokari heltzeko, arrazoiengan oinarritutako ikuspuntu integral, eraldatzaile eta –ingurumenari dagokionez– jasangarri batetik, NBEk 2030erako Agendan jasotzen duen bezala.

Jaurlaritzaren politikak Nazio Batuen 2030erako agendaren helburuekin bat etortzea.

